

Astekaria

BARREN

elgoi



Jai doinuak

ste. PROYECTOS
 Gestión de construcción de obras, S.A.

ETAKO GARANTIA
AS GSRU OLIZAREIN
EDH110₁ IrEIHWEABILIZAIOTAN

ETXE-BERRIZTAPENAK
FATXADA LANAK
IMPERMEABILIZAZIOAK
ESTALDUK ETA TEILATUAK

(t 74 10 94 ■ 74 37 50 FAX 74 39 74

IBAR 1111K1

E EFILEt1 EIBLINIBUTZAILI L.EAL

||

Deba kalea 1 8

152 74 05 03

ELGO1BAR

elgoiBARREN

Nafarroa enparantza 2

v 7441 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarrar.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udalo.

ZUZENDARIA:

Alberto Agirreazaldegi.

HIZKUNTZA ARDURADUNA:

Aniel Ugarteburu.

ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Iriaki Arrieta, Antton Bergara,

Edurne Bilbao, Rosa Iriondo,

Jose Inazio Sorasua.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,

Jasone Osoro.

MAKETATZAILEA:

Maite Rementeria,

Edu Sanz.

PUBUZITATEA:

Nekane Etxoniz.

ADMINISTRAZIOA:

Josune Fernandez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldegi, Itziar

Agirregomezkorta, Ana Aizpiri,

Myriam Aldazabal, Isabel Ansola,

Nere Arostegi, Gotzon Arrieta, Pello

Arrieta, Belen Arrizabalaga, Ainara

Burgoina, Urtzi Etxabe, Asier

Etxoniz, Sugar Etxaniz, Felix

Etxeberria, Izaro Etxegibel, Enefz

Ezenarro, Iiziar Fernandez, Jose

Mari Galdos, Ina Garagarza,

Golzon Gerate, Amaio Gorostiza,

Affonso Guillo, Maite friondo, Ekaitz

Isasi, KOKOE, Enrike Larrañaga,

Imanol Larrañaga, Haritz Lean,

Jesus Mari Makazaga, Aitor Maya,

Inaki Odriozolcr, Ixa Sanchez, Jose

Inazio Sarasua, Oifiana Tarragual,

Afain Ulazia, Olga Unzilla, Igor

Vazquez, Ana Vila, Miryam

Villasante, Alaitz Vives, Aitor

Zabaleta, Yulen Zabaleta,

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.

(Zubillaga Otioti)

TIRADA: 3.300 elle**LEGE GORDAILUA:** SS.1 .038/92**ISSN:** 1133-021X

elgoiBARRENek ez du bere gain hortzen aidizkolan adierazitako esanen eta iritzien eranizunkizunik.



Ahopekoen menpe

Hitz hauek ez daude edonorentzat idatzita, ahopeka jardutearen zale direnentzat baizik. Txikitan erakutsi zidaten ahopekotan ihardutea itxuragabekeria dela. Asko jota, umekeria. Ni ez naiz inor aholkuak emateko, baina bai nire beldurra adierazteko, ez ote den gure herri ttattarretik sekula desagertuko portaera hori.

Esameslarien errainukoentzat idatzita.

Esamesaren errainuan norgehiagoka ahalik eta bidegabekeriarik xebleena asmatzean datza. Gaia: librea. Protagonista: etsai-erara hartutako edonor. Helburua: horrenganako etsaikeria justifikatzea. Tresna: ahopeka. Emaizta: zurrumurruz kutsatutako gizartea.

Txertorik gabeko gaixotasuna da zurrumurrua: frogatzerik ez dagoena, ukatzerik merezi ez duena, gezurra egia eta egiak

gezur bihurtzen dituen sasi-hiritarren jarduna; sortu, hedatu, bertanbeheratu eta arrasto ustela utzi besterik egiten ez duena.


Alajainkoa! Ondo dakizue zuek, ahopekaren errainuko gizaseme zaretenok zein tresna mingarriaren jabe zareten, kupidarik gabekoek erabiltzeko sortua. "Izena duenak izana du" dio esakuntzak gure zaharregandik jasotako hizkuntzan. Hau ahuldura! Orain esamesa jaun eta jabe.

Barka irakurle -ahopekaren errainuko zaren hori- ahopeka sainduaren indarra ez miresteagatik! Ez bainaiz errainukoa.

Esaidazue AHOPEKA ERRAINUaren babesle garbi, garden, leial zaretenok, ze eraiki nahi duzuen eta zuen errege zein den.

Ana Aizpiri

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*



2j |||||

Ludotekako teknikariek deitu digute, aste barruan ludotekara joan eta bertako jolas-jokuekin "jolasean" ibiltzen direnak salatzeke. Dagoeneko kanasta bat apurtu omen dute eta hainbat joku hankaz gora laga. Bukatzeko, ludoteka umeentzat dela gogorarazi nahi diete.

4 |||||

Kirolari batek deitu digu Mintxetako kirol instalazioak dauden tokian eraikitzeke erabakia hartu zuten txalotzeko. Berak esan digunez, Elgoibarren "txapuza" asko egin dira baina Mintxetako "benetako aziertoa" izan omen da. Gozada bat omen da garai honetan Mintxetara kirola egitera edo pasiatzera joatea.

AEK/HABE normalkuntzarako urratsa

Duela hilabete batzuk, AEKk sinadura bilketari ekin zion, "herritarrek euskara ikasteko duten eskubidea" aldarrikatuz eta ekimen honek erantzun ezin hobea jaso zuen herritarrengandik, 140.000 sinadura bildu baitziren.

Kanpaina honetan murgilduta geundelarik, AEK eta Eusko Jaurlaritzaren arteko harremanak hasi ziren. Behingoz gatazka girotik elkarrizketa girora pasatuz.

Lehenengo bilera urtarriktren 31n burutu zen Lakuan, bertan Eusko Jaurlaritza, AEK eta EAJko kideak parte hartu zutelarik eta izaera libre duten euskaltegien egoera bideratzeko borondatea adierazi zuen Kultura Sailburua den Joseba Arregik; euskararen etorkizunerako ekimen herritarra eta instituzionala batzea ezinbestekoa dela azpimarratuz.

Harrez gero, hainbat bilera burutu dituzte lehen aipatutako partaideek eta bi aldeek adosturiko ituna onartu da, nahiz eta oraindik berau sinatzeke dagoen.

Elkarrizketa giro honek, taskalgintzan eta, orohar, euskal gizartean ilusioa eta itxaropena sortu ditu, beraz, orain Jaurlaritzaren esku dago nahi hori ez zapuztea eta Martin Etxeberrria HABEko zuzendariak adierazi duen bezala, behin betirako euskalduntze-alfahetatzean normalizazioa lortzea.

Elgoibarko AEK Euskaltegia

Arartekoa eta euskara

H erri honetan harrizterik ez dago. Euskararekiko mesprezu eta irainak eguneroko gauzak dira. Orain diote Ararteko jaunak ez duela gure hizkuntza jakiteko beharrik. Bi alderdi espainolek eta "besteak", EAJk, (euskalduntzat duena bere burua) haien hitz majikoa erabiliz, "kontsentsoa", alegia; zas, bapatean Ararteko erdaldun bat aukeratu dute. Ez da nahikoa hainbat eta hainbat lekutan, Osakidetzan, Euskal Gobernuako bulegoetan, Korreos-en, abokatuekin, hainbat udaltzainekin, epaileekin, ertzainekin gure hizkuntza erabiltzerik ez izatea. Orain jende xumeen kexak aztertu behar dituen gizon edo emakumea, kasu honetan Jabier Markiegi, erdal jakituna soilik izatea falta zaigu. Gaur bertan entzun dut Erandioko gazte bat ertzain bati euskaraz mintzatzeagatik atxilotua izan dela eta berean jarraitzeagatik laupabost ordu pasa duela komisaldegian.

Zein eskubide dugu euskaldunok euskararen eraso horien kontra?

Zer egin edo nora jo dezakegu eskubide hori errespetatu dezaten?

Bihotz bihotzez eskertuko nieke "Zenbat buru hainbat aburu" atalean euskaraz hain ederki idazten duten BARREneko laguntzaleei, jakinean badaude behintzat, nere bi kezka hauek argituko balituzte.

Gure herrian bigarren mailako hiritarrak gara eta gainera, guk, erdaldunak diskriminatzen ditugula entzun behar.

Kurutx Castrillejo





4,4 ste honetako erretratua Ana Mari Mugerzak lagatakoa da. Ez dakigu noiz ateratakoa den baina bertan matadero zaharra ikus dezakegu.

Begoria Mugerzak esan digunez, egun Maalako parkea dagoen tokian zegoen. Bota 1952. urtean bota omen zuten, Lerungo zubiaren ondoan berria egiteko.

<p>iiiP J E P</p>	<p>aargh 111F- ".....hi v</p>	<p>[S]</p> <p>ey "n"il'</p> <p>Pyuz Ī;a · furra gezafct zure irri&irrecd yure oratrnencd geroittio d'iju.</p> <p>ZURE EMAZTEGAIA ETA LAGUNAK</p> <p>egf@' -1</p>	<p>tiC n 2' c 1</p>
-------------------------------	-----------------------------------	--	---------------------------------

Trinitate kolorea, usaira eta sokaia

Kontzertuak, sukaldaritza lehiaketa, haurrentzako parkea... eta beste zenbait ekitaldi antolatu ditu Udalak astebukaera honetan ospatuko ditugun Trinitate jaietarako. Azken asteotan gogor entsaiatu eta gero, Udal Musika Bandak jotako tanborradaren doinu ezagunak eta haurrek astindutako tanbor hotsek beteko dituzte sapatu arratsaldeko orduak. OHoko ikastetxeetako 5. eta 6. mailako haurrak, Napoleon eta sukaldari jantzita, Plaza handitik aterako dira, herri guztia zeharkatuko dutelarik.



• Tanborra gogor astinduz zeharkatuko dituzte herriko kaleak.

Haurren tanborradan Elgoibarko OHoko hiru ikastetxeetako 5. eta 6. mailako haurrek parte hartzen dute. Orain arte Juan Mari Eguren arduratzen zen tanborradaz, baina aurten, Musika eta Dantza Fundazioak hartu du bere gain

ardura hori. Haurren tanborradaz aparte, garai batean Trinitate jaietan nagusien Tanborrada ospatzen zen. Askorentzat ohitura polita zen; beste batzuentzat, berriz, ez zuen inolako erakar-garritasunik. Kontua da, gustuko izan ala ez, galdu egin den ohitura dela. Haseran Elgoibarko Iztura elkarteak antolatzen zuten eta Elgoibarko Konporta soziedadeko zenbait kidek haren antolakuntzan laguntzen zuten, afariak prestatuz, lokala tanborradarako jatzeko utziz... Elgoibarko Izarrak tanborrada egiteari laga zionean Konportak hartu zuen hura antolatze ardurara. Bost urtetan antolatu zuten soziedade honek nagusien tanborrada, baina hainbeste jenderen

arteko koordinazioa zailtzen zihoanez, azkenean, antolatzeari laga zioten eta Elgoibarren ez da berriro nagusien fonbon adarik egin.

Gastronomi lehiaketa

Aurten, Trinitate jaietan ohizkoa zen gastronomi lehiaketa berreskuratu da. Lehen aldiz 1977. urtean antolatu zen. Antolatzailea Eroskiko Kontsumitzaileen Batzordea zeritzan taldea zen. 1983. urtera arte izan zuen batzorde honek guztia prestatzeko ardura, lehiaketaren antolakuntza Udalak bere gain hartu zuen arte, alegia. Urtero aldatzen zuten lehiaketan sukaldatu behar zen jakia. Baina ezagunenak, marmitako eta pil-pilean egindako makilau lehia-



• Lehen lehiaketan antolatzailea Erbskiko Kontsumitzaileen Batzordea izan zen.

GASTRONOMI LEHIAKETETAKO

ketak izan ziren.

1985. urtean egin zen azkenengoz herriko elkar-teen arteko lehiaketa. Jose Luis Arana sukaldari elgoibartarrak lehiaketa berreskuratu nahi izan du eta bide batez, haserako batzorde antolatzaileko kide zen Pedro Gallastecriri omenaldia eskaini nahi izan dio. Udalaren lagun-tzaz, eta elkar-teen partaidetza eskatuz, Jose Luis Aranak lortu du azkenean lehiaketa anto-latzea.

Aurtengo lehiaketan marmitakoa prestatu beharko da. Jaki hau hobetoen prestatzen duen elkar-teen lehen saria irabaziko du, 10.000 ptako saria, hain zuzen. Bigarren sailkatzen den elkar-teen 8.000 pta. jasoko ditu eta hirugarrenak 6.000 pta. Parte hartzen duten elkarte guztiek tro-

feoa jasoko dute.

Lehiaketan herriko 10 elkartek hartuko dute parte: Estarta, Biar-Dana, Baltasar, Zubi-Ondo, Kalamua, Karakate, Muxikin, Casa Galiza, Herri Gain eta La Union.


Epaimahaiko kide Txarriduna jatetxeko Imanol Urain eta Eibarko Artola jatetxeko Jesus Artolazabal izango dira.

- 1997. Marmitako lehiaketa: "La Union" (Fernando Izagirre eta Heriberto Medina),
- 1978. Makilaua pil-pilean: "Baltasar" (Juan Miguel Esnaola eta Juan Jose Arregi).
- 1979. Berdura menestra: "Biar-Dana" (Lucio Beitia eta German Pedrosa).
- 1980. Makailua pil-pilean: "Karakate" (Mario Iranzo eta Esteban Gonzalez).
- 1981. Paella: "Baltasar" (Carlos Mugerza eta Angel Arregi),
- 1982. Untxia saltsan: "La Union" (Heriberto Medina eta Karmelo Lasuen).
- 1983. Makailua Bizkaiko erara: "Konporta" (J. Angel Zubiaurre eta J. Luis Arriola).
- 1984. Marmitakoa eta arroz esnea: "Gure Bide" (Txomin Loiola eta J. Maria Bastida).
- 1985. Antxoa nahaskia eta Rape "a la americana": "Ka amua" (J. Maria Agirrebeña eta Agustin Irusta).

Aurreko urteetan, berriz, sukaldari ezagun askok osatu dute epaimahaia: 1978. urtean Karlos Argiriano izan zen epaimahai-kide, 1978an Juan Jose Lapitz eta 1981.ean Jose Maria Busca Isusi eta Pedro Subijana, besteak beste.

Jaiaren nondik norakoa
Asteburu honetan

elgoibartarrok ospatu behar ditugun Trinitate jaiek, 325. urtean dute jatorria herrialde katoliko-etan, Niceako kontzilioko dogma aldarrikatu ondoren. Koldo Lizarralde etnologoaren ikerketen arabera, jai hau, nabarmenki errotu da gure herrian. Ikertzaileak aurkitutako lehendabiziko erreferentzia 1897. urtekoa da, hain zuzen "Santísima Trinidad" egunean zezenketa egiteko baime-na eskatu zenekoa. Dirudienez, garai hartan gaur baino modu "handiagoan" ospatzen zituzten Trinitate jaiak. XX. mendeko lehen urteetan, ohitura zen gure herrian hiru berbena ospatzea hiru toki ezberdinetan: Plaza txikian, Plaza handian eta merkatu zaharrean, gaurregun dagoen toki berean zegoena. Leku estalia zen merkatua eta egitura hori aprobetxatuz, antzerkia eta boxeo konbateak ere ospatu ziren bertan, aipatutako dantzaldiez gain.



1977ko epaimahaia: Roke Arregi, J. Alonso eta Jose Luis Arana.

Nagusien tanborrada

1973.eko Trinitade festen bezperan, gure herrietan oso zabaldurik zegoen ohitura zahar bat berreskuratu zen.

Urte asko pasa ziren, Etxegiña zenak azken aldiz zuzendutako tanborrada hartatik. Gazte talde bat izan zen herriaren alde hainbat ekintza egiteko asmoarekin, tanborrada berriro ere martxan jarri zuena. Hauek herriko beste gazte guztiei luzatu zieten gonbidapena eta denok gogor ekin genion ilusio handiz ohitura hau eguneratzeko lanari.

Frantses ohitura izan arren, gure nortasunera egokitzeko egin genituen ahaleginak. Lan askoren ondoren egia bihurtu genuen Elgoibarko kaleetan zehar tanborjoleak, barrikazaleak, sukaldariak, kantinerak, eta nola ez, Karroza, (Sigmako Karraka) erregina eta bere damarekin ikustea, eta hau guztia, noski, herriko bandaren doinuaren laguntzarekin.

Garai hartako egoera soziopolitikoak eragin garbia izan zuen antolatzaileren artean, eztabaidatzen hasi 1,inen "emakunie objektuaren" irudia etb.

Eztabaida hauen ondorioz, ernakurneen karroza baztertu eta Euskadi

eta berari buruzko ohituren irudiak ateratzen dira.

Gauza guztiek bezala honek ere bere bilakaera jasan zuen, eta denborarekin karrozen irudien gaiak gero eta erreibindikatiboagoak bihurtu ziren, baina beste denbora batzuk ziren, ia denok helburu eta kontrako berdinak genituen, orain aldiz...

13 urte pasa ondoren, askotan gertatzen den bezala, hau ere bere haserako garra eta grina galtzen joan zen. Zer pena!

Bukatu egin zitzaigun batzen gintuen beste ekintzetariko bat.

ANIMO! Ea norbaitek testigua hartu eta gure gaztaroan bezala berriro berpizten duen.



ANTTON BERGAR A

IDARRAGA
KAFEAK

Eguneroko errealdiak

San Frantzisko 17. Tel. 74 05 33-36 39

AITZ BIZKAR
ARDOAK

ARDO ETA PATEARRA
PATATA SALMENTA

Etxerainoko
banaketa

Errosario 18
74 02 37

eTarki

Uarruko
erropak
- Umeentzat
erropak

GW16, faam,
71.~te 7:41.e:44//

San Frantzisko 10,
Te I : 74 26 19

OINETAKOAK

San Frantzisko, 34 Tel. 74 02 35

DEKORAZIOA

PROIEKTUAK
ERREFORMAK
ALTZARIAK
OPARI GALAK

Santa Ana 2 Tel: 74 35 09

giza ~ Meziwizuzez eifill tielAdff --

Solfeo, Koral, instrumentu eta Dantza matrikulak zabalik daude

Ekainaren 6tik 17ra. Plaza Agirre 3 - 1. (ordutegia: 5-7)

www.

Zer falta zaie Trinitate jaiei?



INAZIO ZABALETA

72 urte, jubilatua


Tanborradiak jendia alegrau itxen dau eta neri gustatzen jat behintzat. Nik uste dot ohixuria berreskuratu biharko zebela gaztiek.



MARISABEL ZULAIKA

45 urte, langabetua

Tanborrada, berbenak eta gauza guzti horiek oso ondo iruditzen zaizkit. Trinidadia nahiko galdu-to. daoz eta animatzia ez zan batere geizki egongo.



ALBERTO IBARLUZEA

20 urte, ikaslea

Uste dot gaztientzake gauza gehixo egon bihar diala, adibidez zezenak ez daoz eta kontzertu gehixo. Tanborradiaren beharrik ez dot igartzen.



EDUARDO BITERI

28 urte, langabetua

Oin ez dao lengo ambientia, gigantiak... Gauza asko falta dia, tanborradia hoietako bat da, jendia dantzara ere ez da juten. Jaixak tabernetan dia oin.



CONSTANTINA NICOLAS

60 urte, etxeoandrea

Herritarrentzako ekitaldiak ondo daude jaiak alaitzeko, gertatzen dena da lehenengo urteetan gogor hasi arren gero indarra galtzen joaten direla.



BEGOÑA LATXA

71 urte, etxeoandrea

Tanborradiak animazio demasa ipintzen dau. Lehen San Antonetan itxen zan eta oso politxa zan. Ondo egongo zan berriro hastia baina zaila ikusten dot.

01(1,asa 7-;/;praeUlt, taberna

__Ermuaran-bide. Tel 74 26 33. ELGO1BAR__

JUANA URRESTI

JANARIBENDA

*3Califalezo laX;i .6ija 4aza&z,
zaloz yureyczna, -7xabagana I*

San Bartolome 12 - Tel. 74 12 26 ELGOIBAR

IRAKASLE ESKOLA

Magisterio Eskolak zera jakinarazten du:

☎ << 1994-95 ikasturterako aurreinkripzio-
epea zabalik dagoela.

ikastetxe honek, Euskal Herriko Unibertsitateak onartu
dizkion espezialitateetatik, honako hauek ezartzeko
eskabidea egin du 1994-1995 ikasturteari begira:

- Haur Hezkuntza
- Atzerriko Hizkuntza: Ingelesa
- Hezkuntza Musikata

Informazioa

IRAKASLE ESKOLA. Tel: (943) 71 41 57
20540 ESKORIATZA (Gipuzkoa)

• Karidadeko monien omenezko bazkaria

Karidadearen lagundiko monjak Elgoibarrera etorri zirenetik 125 urte bete direnez, ospakizun berezi bat egingo da datorren ekainaren 26an. Urteurrena ospatzeko ikasle ohien batzordeak bazkaria antolatu du, eta ikasle izandakoek zein joateko gogorik dutenek bazkarirako izena eman dezakete beranduenez, ekainaren 15ean, honoko toki hauetan: Murumendiaraz Gozotegia, Lanas Conchi, Gorriti Janaridenda, Muxi Kirolak eta Gloria Mugerzaren loradenda (Merkatu plaza).

■ Marrazketa ikastaroa

Egur Arte Tailerrak, Udala eta Aldundiaren laguntzaz, marrazketa artistikoari buruzko ikastaroa antolatu du hil honen 30etik ekainaren 17ra bitartean. Ikastaroaren ordutegia arratsaldeko 6etatik 8ak arte izango da. Izena emateko *Egur* tailarrera zuzendu, Ubitarte plaza z/g, (Ihengo Ikastola) arratsaldeko 6,30etatik 8etara bitartean.

■ C.D. Elgoibar-eko presidentziarako hautagaiak


Elgoibar Kirol Elkartearen presidentziarako hautagaien zerrenda osatzeko epea irekita dago. Beraz, hautagai izan nahi duenak ekainaren 4ra arte izango du epea. Bazkideren batek hautagai izan nahiko balu elkartereko zuzendaritza batzordeko kideren batekin harremanetan jarri.



Elgoihar-Azkoitia errepidearen inaugurazioan, zinta moztan ditugun Jose Antonio Ardanza Lehendakaria, Eli Galdos Aldun Nagusia, Roman Sudupe Azpiegitura Alduna, Xabier Arzalluz EBBko burua eta Elgoibar, Azkoitia zein Azpeitiko alkateak izan ziren Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Aldundiko beste hainbat agintariren artean. Ekitaldian erraminta makinaren sektoreak bizi duen egoera dela eta Lagun eta Geminis-eko langileen protestak entzun behar izan zituzten agintariek.



Dantzari hauek, Abel Iriondo, Aitor Viilaras eta Mikel Legorburu, hiruak Haritz Euskal Dantzari taldeko kideak, Pasaiako Udalak antolatutako Euskadiko Aurrekulari Txapelketan parte hartuko dute igande honetan, hilak 29. Txapelketa honetaz gain, datorren ekainaren 5ean, Irungo Udalak gonbidaturik bertako aurrekulari txapelketan izango dira aipatutako hiru dantzari elgoibartarrak.

PELOUSE CAFE 
San Frantzisko 43, Tet: 74 20 40
TEATRO
Optido, fzada 7ate 7:ou:41.11

GARATE
est ankoa
Santa Ana 20 - 74 03 40

Lagun eta Geminis-en 134 lanpostu gal daitezke

Lagun eta Geminis enpresak jasaten ari diren informazio eta parte-hartze eza salatu zuten langileek joan den ostiralean emandako prentsaurrekoan. Ez dute negoziazio mahairik ez eta errekonbertsio planik ere. Langileek zera bakarrik dakite: bi enpresetan 134 pertsona kaleratzekotan direla. Bi enpresak "Nuevo Holding" taldearen barruan daude Etxetar, Itziaroko Morkaiko, Gasteizko Ladarasa eta beste batzuekin batera. Badirudi N.H. taldea bi zatitan bana daitekeela. Etxetar da hobekien dabilen enpresa eta uste denez ez du taldean jarraitzeko asmorik. Enpresen etorkizuna taldea osa-tzean dago, eta oraindik ere ez dago adostasunik taldea osatzeko.

Bi lantegietako langileek N.H. taldea zein enpresek osatuko duten zehaztea eta euren jakinaratea nahi dute. Halaber, Eusko Jaurlaritzak



N.H.ari buruz duen informazioa azaltzea eta bere jarrera zein den esatea eta sindikatuek, Eusko Jaurlaritzak eta enpresariak negoziatio mahai bat osatzea, guztien artean negoziatu

dadin N.H. taldearen eraketa. Bestalde, LABek Deba bailara eta Durangaldeko langileen manifestazioa deitu du larunbatean, hilak 28, Eibar-ko Unzaga plazan, 12,30etan hasita.



Galiza Etxeak antalatutaka Dia das Letras Galegas jaien egitarauan iragarritako Ourenseko *Danza Andaina Da Laa* taldeko dantzariak ditugu ekinean. Dantza eta musikaz gain, galiziar gastronomia ere dastatzeko aukera eman dute jai hauek.

300 haur Eskolarteko Bertso idatzien txapelketan

Ikastolako 300 ikaslek hartu zuten parte Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan, bertso paperen sailean. Horietatik 62 Zarautzen egin zen bigarren kanporaketara heldu ziren. Bertso Eskolako Jon Garatek, Jon Gerrikagoitiak eta Kepa Mendikutek bapateko saioan hartu zuten parte. Bertso eskolako kide diren Arnaitz Gorriti eta Irati Agirreazaldegik ere parte hartu zuten txapelketan. Iratik finalerako sailkatzea lortu zuen. Oartzunen, hil honen 28an izango da; bertan jakingo dira halaber, bertso paperetako mailaz mailako irabazleak.

TINDATEGIA
Ondo pasa jaiak!
 Foruen Enparantza 4
 Tel. 74 00 91

(»ai--onito
 er,zete,kt
 Giza eskubideen Plaza

vozi&
**DIETETIKA
 KONTROLA**
 Foruen plaza, 5
 Tel. 74 08 78

Pedro Nari Azpiazu:

"Etorkizun ona ikusten diot grabatuari"

Pedro Mari Azpiazuk, 43 urte dauzkan elgoibartar honek, 30 daramatza grabatzaile lanean. Grabatzaileak marrazkilari trebea eta azkarra behar du izan. Pazientzia

eta esperientzia dira maisurik onenak, ez baitago eskolarik ikasteko. Pedrok, esan digunez, ez du bere burua artistatzat hartzen; bera, artisau kontsideratzen da.

Nola sartu zinen mundu honetan?

- 70ko hamarkadan hasi nintzen grabatua ikasten Etxanizekin. Gerora, Victor Iriondorekin grabatu industrialala ikasi nuen eta, azkenik, nere kontura hasi nintzan lanian.

- Zer nolako lanak egiten dituzu?


- Denetarik: bitxitegi lanak, industriarako grabatuak, pin-ak, arropa markak, giltzatakoak eta lan artistiko bezela, batez ere, kalkografiak.

- Zenbat denbora behar da grabatu bat egiteko?

- Lanaren araberaoa izaten da. Argazki bat grabatzeko, adibidez, astebete behar izaten dut. Denbora gutxien eskatzen duena, bitxitegi lana izaten da.

- Zer nolako arazoak izaten dituzu?

Materiala, batez ere, zer nolako materiala behar izaten den erabakitzea. Dena dela, arazoak ez dira ikusten egin behar duzuna zehaztu arte.



"Grabatua ikasteko pazientzia handia eta urteak behar dira."

Arazo horiek, gainera, martxaren arabera, egiten zoazen neurrian, gainditzen dira.

Jendeak gauza konkretuak eskatzen ditu edota zure esku uzten du?

- Kalkografian, normalean, bezeroak zehazki esaten du zer den nahi duena. Marrazkietan,

aldiz, zeure erara zabilta gehiago, askatasun gehiago daukazu. Orain, adibidez, Kixoteren lan bat ari naiz bukatzen eta dena nik sortu behar izan dut.

Ba al dago zaletasunik Elgoibarren?

- Bai, tailan aritzen dira piska bat. Baina gra-

batua ikasteko pazientzia handia eta urtiak behar dira. Gainera, ikasteko aukera zutxi dauka jendeak, eskolarik ez baitago.

- Zein da, egin dituzun guztien artean, gehien gustatu zaizun lana?

- Batez ere, orain egiten ari naizen Kixotea.

Zenbat kobratzen duzue?

- Garestiena argazkia da, 125.000 pta inguru. Eskudoak 40.000 pta daude, marko eta guzti. Jendearentzat merkeena bitxi asuntua da, kate batean egiten den grabatu batek 600 pta inguru balio ditu. Gainontzean, prezioek gora-behera handiak dituzte egiten den lanaren arabera.

Nola ikusten duzu grabatuaren etorkizuna?

- Ona dela esango nuke. Bailara honetan grabatua armerixiak lotuta egon da urteetan. Honetaz gain, garrantzitsuena mundu hau ezagutzea eta honen alde lan egitea da.

MAITE IRIONDO

kartutxo BERTAKO JAKIAK
Ondo pasa jaiak! **okindegia**
San Frantzisko 33 ☎ 74 31 67

GOR, BE241
JAILIXE4
Zorionci Aerriliarrei I

|| Eff nonfittz Tztrik gazte auzo || andegiak

Gazte Auzolandegia gazteen arteko konbibentzian oinarritzen da, elkarrekin bizi eta gizartearekin zerikusia duen proiektu batean parte hartzeko asmotan eta, aldi berean, taldemlm brsfitzeak dakartzan esperieuntzflak ikasi eta beren lananiren Ebilltarte z lurralde ezberdinetako bizimoduak, kulturm k, historiak eta egoera sozioekonomikoa ezagutu.

Izarraitz Bizirik auzolandegia Mendaron egingo da, uztailean zehar. Egitasmo honen helburu nagusia aintzinako karobien konponteta eta berreskuraketa izango da.

Bi taldek hartuko dute parte, 18 urtetik hasi eta 22ra bitarteko gazteez osatuak. Egonaldiak 15 egunekoak izango dira.


Aipatutako karobiak XIX. mendean eraikitakoak dira. XX. mendeko erdirarte karea egiteko erabiltzen ziren, Mendaron eta inguruan aukeran dagoen karaitz edo kareharria 900-1000 gradutara egosiz. Karobiek lapiko haundi baten itxura dute eta bi eratakoak aurki ditzaitegu: mendiaren mal-

daren aurka egindakoak eta leku lauan eraikitakoak.

Baserritarrek, karobien kokapenerako hiru dintza izaten zituzten kontuan:

- Baserriaren inguruan eta leku estalian izatea.
- Inguruan karaitza izatea.
- Erretzeko sastraka ere egotea inguruan.

Labaren eraikuntzarako metro bateko zuloa edo galdarekin hasten zen. Ondoren, buelta osoan harrizko orma jasotzen zen, harriaren juntak basarekin hartuz, egosketaren sua gal ez zedin. Neurri askotako karobiak ikus ditzakegu, gehienak 3 metroko altuera eta 2,5 metroko diamentroa dutelarik.



Karobi hau bezalakoak konponduko dituzte auzolandegietan.

Lortutako karea nekazaritza eta eraikuntzan erabiltzen zen. Nekazartzan zelaien ugalketarako (lurraren PH azidoagatik) eta eraikuntzan eustore edo argamasa egiteko, hondarrarekin eta urarekin nahastuz, eta etxeen fatxadak zuritzeko, azken hau Gipuzkoako nekazal eraikuntzen ezaugarrieta-ko bat izanik.

Gaur egun Mendaroko karobiek duten itxura

nahiko kaskarra da; gehienak lurrez eta zaborrez beteta daude eta laba osatzen duten harrizko ormakjausita daude.

Beraz, auzolandegia- ren helburua karobi hauek konpontzea da, batez ere, bistan eta egoera onenean daudenak eta, ondoren, berreskura tu- tako karobien arteko ibilbi- dea sortu *Izarraitz Bizirik* proiektuaren barruan.

Mendaroko Jubilatuen Elkarteak

Mendaroko Jubilatu eta Pentsionisten Elkarteak eratzeko ekimena bultzatu eta gauzatzeko maiatzaren 18an, Kultur Etxean, Mendaroko Pentsionisten bilera egin zen. Helburua, bazkide kopurua ezagutzeko eta zuzendaritza batzordea edo direktiba sortzea zen.

Gaur egun, bazkide kopurua 130 pertsonakoa da. Hona hemen zeintzuk diren zuzendaritza osatzen dutenak: Araniza Arrieta, Maria Unzueta, Valentin Jauregi, Rosario Longarte, Regina Garzia, Milagros Goikoetxea eta Jose Antonio Iriondo. Elkartearen bazkide edo direktibaren partaide izan nahi dutenek izena eman dezakete "Animazio Sozio-Kultur Taldea"n edo bestela gizarte laguntzailearengana zuzendu daitezke.

Batzordearen asmoa jubilatu eta pentsionistei zuzendutako ekintzak antolatzea da.

XV. Kros Ilerrikoia

Bihar, larunbata, izango da urtero antolatzen den kros herrikoia, aurten XV. edizioa betetzen duena. Orain arte Kurutzperen esku egon bada ere aipatu krosa, aurten Udala arduratu da, kultur elkarteak momentuz ez baitago martxan. Kategoria ezberdinak egongo dira, hasi alebinak eta helduak arte, adinaren arabera ibilbidea ere luzeagoa edo motzagoa izango delarik, noski. Honela, txikienek 1400 m egin behar dituzten bitartean, helduek 9850 m. Ea ahalik eta jenderik gehiena animatzen den parte hartzera.

TRINITATE JAIAK Mendaron

Aurten ere Trinitate auzoko jaiak ospatuko dira Mendaron. Dagoeneko zehaztua dago egitaraua. Hona hemen maiatzaren 28an hasi eta 30era bitartean izango diren ekintzak.

MAIATZAK 28, LARUNBATA

Arratsaldeko 3etan: Kanpai soinu eta etxaflivak.

MAIATZAK 29, IGANDEA:

Goizeko 9etan: Txistularien kalejira.

Goizeko 11etan: Meza nagusia Trinitateko ermitan.

Ondoren, Txistulariak eta Ospas eta Sabin Trikitilariak arituko dira.

Eguerdiko 12,30etan: Herri Kirolak:

Aizkolaria: TXAPARTEGI

Trontzalariak: AGERRE-TXIKI eta KANUE

Harrijasotzaileak: JON SALEGI (SARUE)

MAIATZAK 30, ASTELEHENA:

Goizeko 11etan: MEZA, Trinitateko ermitan.

Eguerdiko 12etan: Ikastolako haurren BERTSO SAIOA.

Ondoren, Laja eta Landakanda trikitilariak eta hamaiketakoa.

Arratsaldeko 7etan: Aizpen, urteroko MAKALLAU JANA.

Gaueko 10,30etan: ERROMERIA Trinitaten.



Soldaduzkaren aurkako kanpaina

Mendaroko Jarraik intsumisioen alde eta soldaduzkaren aurka zenbait ekintza antolatu ditu.

Ekainaren 6an, astelehena, Intsumisioari buruzko hitzaldia emango dute KEM-MOC eta KAKITZATEko bi intsumisok, Kultur Etxean.

Ekainaren 8an, asteazkena, bideo emanaldi bat izango da, Kultur Etxean baita ere. Gaia, In-

tsumisioaren historia.

Ekainaren 11rako, larunbata, jaialdi bat antolatu dute. Gaueko 11etan hasiko da MPB rock taldearen ekitaldiarekin. Atsedendian bertsolariak arituko dira. Ondoren, *Ume Gatztuak* taldearen kontzertua izango da eta jarraian txalaparta. Jaialdia, *Flitters* taldeak eskainiko duen kontzertuarekin amaituko da.

PROTAGONISTAK



Argazki hau Agustin Maria Berasaluzek utzi digu. Erretratua Urtian ateratakoa da, 1965 urtearen bueltan.

Hara hemen nortzuk diren bertan ikus ditzakegun neska-mutilak. Goitik behera eta ezkerretik eskumara:

Lehenengo ilaran: Luis M. Arrillaga, Juan Jose Arrillaga, Angel Gurrutxaga, Jose M. Zelaia, Juan Agustin Arreitunandia eta Simon Gurrutxaga G).

Bigarren ilaran: Jose Luis Zabala, M. Kontxi Mugerza, Gregorio Vives, Angelita Izurrategi, M. Karmen Zulaika, Jose Izurrategi eta bere andregai

eta Jose M. Arrizabalaga.

Hirugarren ilaran: Trini Urbietta, M. Itziar Oriederri, Gregorio Garate, Juanita Izurrategi eta Antxon Piñel.

Laugarren ilaran: Jose M. Zabala, Begofia Ulazia, Juan Jose Arriola, Miren Juaristi eta Itziar Lazkano.

Lurrean jarrita: Belen Ansola, Roke Arriola, Felipe Arrizabalaga eta Agustin Berasaluze.

Oharra: Eskertuko genuke jendeak atal honetan sartzeko erretratu zaharrak uztea. Nahi duenak ekar ditzala Udaletxera.

TtlecVL SaeegG Mendaroko ospitaleko sukaldaria



Zenbat urte ospitalean lanean? Bi urte.

Zenbat sukaldari zabilzate? Guztira zortzi sukaldari.

1 Zenbat ordu lanean? Zortzi ordu.

1 Bi txanda dituzue, goizekoa eta arratsaldekoa. Zein duzu nahiago?

Goizeko txanda nahiago dut nik.

1 Janaririk errezena prestatzeko? Barazkiak, lentejak, babak...

1 Eta zailena? Ez dago janari zailik prestatzeko baina denbora gehien fritoak eta xerra rusoak egiten pasatzen dugu.

1 Argiñano ala Subijana? Argiñano.

1 Zer nahiago, etxeko ala ospitaleko lana? Ospitalekaa.

Zure janaririk gustukoena? Arroz a la cubana.

1 Haragia ala arraina? Arraina.

1 Menu ideala? Arrain zopa, fritoak eta flana.

1 Aldatuko al zenuke zure lanbidea? Orain behintzat ez, gustura nago ta.

Hilario Arakist,ain: "Demonixuan aurrian txistu ein eta bertso zarrak kantau"

- Bizi guztia baserrian bizi izan zarela badakigu. Zer iruditzen zaizu kaleko bizimodua?

- Nekosua. Mendian urruti ere bizilekua ez da ona baina kaletik pisakat apartetxo hobea da baserrian lasai bizi izateko. Pisu askotako etxietan eskaileretan gora ta behera jendiak alkarri ez dio egunon ere esaten.

- Baserritik kanpora lan egiteko aukerarik izan al duzu?

- Ez det euki nik halako errezta-sunik. Bestetik, baserrixa lagata jutia ere... Nik pentsatu izan det nere moukuak sobran daudela.

Ctzan - Noiz hasi zinen txondor-
gin-eta nola egiten da?

- 15 urtekin hasi nintzan, aitxixakin. Egurra San Migeletatik hiltbeaxeako sasoi hortan ebagi bihar da, ein udaberrian, azala beakin eukitzen dualako egurrak. Txondorra itxeko lehenegotik kastilua in bihar da behetik gora, sua goitxik behera botatzeko ta inguruan egurra ipini poliki-poliki. Azkenian, goixa ta behia ondo tapau eta behia berotzian ikatza egiten hasi.

- Pasadizuren bat geratu al zaizu?

- Haizia da demoniva, hego haizia txarra da txinpartia libratzen dabalako. Baina neri ez zait sekula

ezer pasau, txistua jo eta bertso zarrak kantatu ta lasai.

- Zuk etxe ondoan karobi bat duzu, ezta?

Bai eta bertatikan karia ateratzen da soruan botatzeko baina nik ez dut sekula Lehen baserri guztietan zeuden karobiak.

- Kalera bajatzen al zera?

Bai, gustatzen jat. Iluntzetik goizaldera arte kafia edan eta purua erre ta lagunekin kontuak esan... Baina jaixan bakarrik. Perixara ere juten naiz, kontuak entzun, kontau...

Txapela okertura eramateak esanahi berezirik ba al du?

- Esangotzuet ba hori ere. Zazpi urte nitxuala buruan urten jatan grano bat eta Don Enrike Albizua medikuak Gartzianian in zian operaziva eta ile gitxikin geratu zitzatan. Orduantxe hasi nintzan txapela ibiltzen.

- Bizitzak irakatsi dizkizun gauza guztien artean, zein aholku emango zenioke gazte bati?

Ikastia, baina gauza guztiak bere denboria bihar dabela. Leno berrogei urtian igual igual ginan, oin bost urtian gauzak azkar dizez eta ez da denborarik egon ez produkziorik ateratzeko ez kristotako. Bizimodua



lasai hartzeko, pazientzia handiz.

- Bertsozalea zara, jarraitzen al duzu berstotan?

- Ikaragarri gustatzen jataz bertsoak baina oraingo bertsolariekin ez nago konporme. Euskeria indartu bihar dabela baina nahastu ez dakit ez daben eitxen. Mendaron eta Las-turren erromerixatan entzuten nibwan bertsoak. Len Mendaron sasoi batian Azpilgueta eta Santa Anako jaiak lagundu itxen zian eta Uztapide zauan Santa Anan. Uztapideri barrixo bixak juntau ta bertsoa botatzeko esan ziuen eta honela esan zuan:

"Arratsalceia bukatzen ari da heldu behar zaio arratsa bi barrivak juntau eta hau da daukagun baratza lenen esango diot Azpilgoeta ta Garagartza orain kontentu ez dauanak jaso dezala behatza."

kiliBARREN

Kolaboratzaileak: Joseba Etxeberria, Aitziber Gurrutxaga, Iraide Loiola, Oihana Tarragual, Alaitz Vives, Garbiñe zabala.

Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua

TIRO RIRO



Frantzisko, 54. 74 13 89

XABIER

ILEAPAINDEGIA

5,(ecall
e9~ta eta enctua

San Bartolome 13, Tel 74 19 97

EXMAHE 2010

MAKINA ERRAMINTA ZERBITZUAK ETA **ESKLUSIBAK**

BULEGOAK:

Azpilgoeta, 3
TEL. 75 50 93 FAX 75 51 21
20 850 MENDARO

ALMAZENA-TAILERRA:

Pedro Muguruza, 25
TEL. 74 36 46
20 870 ELGOIBAR



Javier Juaristi

Arotza



- Zenbat urte daramazu lan honetan?
Hamabi urte.
- Zergatik aukeratu zenuen lanbide hau?
Aitak laguntza behar zuen eta ni sartu nintzen.
- "Bezeroak beti du arrazoia". Zer diozu honi buruz?
Bezeroak ez duela beti arrazoia baina askotan gustua eman behar zaiola.
- Estilo klasikoa ala modernoa?
/ Modernoa. Klasikoa oso ikusia dago, innobazioak beharrezkoak dira.
- Puntuala al zara?
Ezinezkoa zait.
- Egurra ala metala?
/ Segun zertarako.
- Egur mota gogokoena?
Haritza, dudarik gabe.
- Altzariak grabatuekin ala gabe?
I Lisuak nahiago.
- Eduki al duzu inoiz lan istripurik?
B Nik pertsonalki ez, baina tailerrean egon izan dira.
- Asteko egunik sakratuena?
Larunbata.
- Arotza ez izatekotan, zer gustatuko litzaizuke izatea?
Marraztearekin zerikusia duen edozer.
- Zergatik?
Betidanik izan dudalako gustuko marraztea. Asko gustatzen zait.
- Futbola gustatzen al zaizu?
Ez, futbolak alergia ematen dit.

ISABEL, ANSOLA

TRINITATE JAIK

DOINUA:

Muñagorrirena

Danborren soinuekin
hasiko da festa
erraldoi, buru haundi,
tristurarik ezta.
Ez zaitez tala joan
herritik kanpora iheska,
ondo pasa zazue
zahar-gazte, mutil eta neska.

Gaztelu ta kotxeak
programa barruan.
Musika talde batzuk
jarriaz kantuan
dantza egin dezagun
bakoitzak ahal duen moduan
jaiak ondo igaro
besterik ez izan buruan.



LORE AGIRREAZALDEGI

**Fotery**

OKINDEGIA

OPILDEGIA

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35**Orbea**

Kafetegia

:San Frantzisko 6, Tel: 74 31 17

f0o-tetda6⁰¹¹¹ 1⁴⁴¹ KAFETEGIASan Inazio, 2¹¹ 74 27 22 ELGOIBAR

GESTIO ESKOLA SUP#T.G.

Kultura, gestio teknikak, jarrera - baloreak eta profesionalizazioa orekatzen dituen (lau urteko) goi-mailako ikasketak.

SUP#T.G.

**GURASO ETA IKASLE
INTERESATUENTZAKO
INFORMAZIO SAIO IREKIA:**

Ekainak 3, arratsaideko 7etan.
Ekainak 4, goizeko 11 etan.



Deba Baha

INFORMAZIOA ETA IZENEMATEAK:

GESTIO ESKOLA
IMH edifizioa
San Roke Auzoa 1
Tel. 74 41 32
20870 ELGOIBAR



MORKA1KO M.E.

VIENDIUME 70CSTE21

MAIATZAK 29

ELGOIBARKO ITZULIA
Ibilaldi neurtuaren irteera.
Irteera: Goizeko 6:30etan

EKAINAK 1

Juan Mari Eguillor-en
DIAPOSITIBA EMANALDIA.
Gaia: Pirineotako trabesia.
Tokia: Kultur Etxea.
Ordua: 20,00etan.

EKAINAK 2

Juan Mari Eguillor-en
DIAPOSITIBA EMANALDIA.
Gaia: Pirineotako trabesia.
Tokia: Kultur Etxea.
Ordua: 20,00etan.

EKAINAK 5, FINALISTA EGUNA

ELGOIBARKO IZARRAREKIN BATERA "LURRA ETA HIZKUNTZA" EGUNA

8,30: Txistulari Udaltaldearen ongi etorria jasoko dute mendizaleek Foruen enparantzan ondoren goiz erezia joaz.

Jarraian: Morkaikora irteera.

10,15: Morkaikora iristeko ordua.

Jarraian: Hiru -Iturrira eta bertan harnarretakoa.

Ondoren San Pedrora joango gara eta han MEZA Nagusia izango da.

13,30: DOMINA BANAKETA

Ondoren Haritz Euskal Dantzari Taldeak eta Txistulari Udaltaldeak Gipuzkoako Soka Dantza eskainiko dute.

14,30: Lagun Arteko BAZKARIA.

Argingo zubia

7 San Lorentzo erreka-stoak, zabal eta ur emari haundikoa ez izan arren, beharrezkoak ditu zubitxoak aide batetik bestera igartzeko.

1 Garagartzatik Errotaberriraino zubi mordoska bat konta daitezke. Gehienak baserriak eta soroak elkortzeko dira, urak sortzen duen hesia gainditu ahal izateko. Bakar batzuek eginkizun zabalagoa betetzen dute, euren gainetik auzorako bidea iragaten delarik.

- Hormigoizkoak eta berriak, harrizkoak, arkudunak eta zaharrak. Denetarik dago. Gaurkoan Argingoaz arituko naiz.
- Argingo baserriaren lurretan eta etxearen ondoan kokatzen da, Mokoroa baserriaren 1a aurrealdean. Makina bat uholde ezagutu ditu zubitxo honek, ez nolanhikoak gainera.
- Harlangaitzez egindakoa da. Pilareak, ondoko ormak eta dobelaren gainekaldeak zein alboak uharriz eraikiak daude. Nere ustez, harrien arteko kareorea aintzinako erako materialez osatua

dago: karea eta bustinez.

© Zubitxoak baogune bakarraz osatua dago, uharrizko pilareetan (gaur egun uholdeen ondoren pilare bat hormigoiz indartua dago) sostengatzen delarik. Baogune hau, erdi puntuko arku batez eratua dago, hiru metro inguruko kanoi ganga bat garatu duelarik. Neurri hori da, hain zuen, pasagunearen zabalera. Bertatik, baserriko soroetara joan daiteke eta lehen, bidetxior batetik Txillarre baserrira ere bazegoen joaterik.

E Arkitektura herrikoia ezaugarriak nabariak dira eraikin honetan. Ez du, beharbada, bitarteko teknikorik izango baina bai sendotasun aparta erakusten, paisaiarekin bat datorren eraikina izanik.

• Data konkreturik ezin esan, baina hainbat belaunaldi igaro dira bertatik eta gaur egun Argingo zubitxoak toki horretako ingurugiroaren zati garrantzitsu bat da.

PELLO ARRIETA



Patxi Etxeberria Etxabe

Txistularia (1903-1972)



OJANGUI1EN

1903ko abenduaren 10ean jaio zen. Lanbidez soldadorea zen.

Txistulari bikaina. Musikazalea oso txistuaz maiteminduta zegoen.

Txistua ondo jotzeaz gain, txistu eta danbolinak eskuz egiten zituen. Ebanoa eta boj izeneko egurretan landutakoak, soinu perfektuko instrumentuak egiten zituen.

"Patxi" markako txistuak euskal herri osoan ezagunak izan ziren eta aprezio handikoak ziren txistularien artean.

- 30. hamarkadan Markinara joan eta 1952. urtean Elgoibarrera itzuli zen, soldadore lana eta txistua konpajinatuz.

Parrokiko koruko eta bandako kide izan zen urte askotan.

0 Gazte askori erakutsi zion txistua, tartean, gaur eguneko txistularien zuzendaria den Jose Inazio Sarasuari, Txomin Mujikari etb.

Silvino Gabilondo lagunarekin batera jai herrikoi eta erromeria ugari alaitu zituen.

1972ko uztailaren 3an hil zen.

III

3

5

Eip

*Maiatzaren 18an hil zen JOSE ANTONIO GOROSTIZA OTAEGIren ahaideok, **ESKERRAK** emari nahi dizkizuegu haren hiletara joan zinetenoi, samin agurrak bidali eta une latz honetan lagun izan zaituztegun guztioi.*

e.r3

do

M | T | Z | A | K

Hiru igerilari, Gipuzkoako txapelketan

Olaizaga Igeriketa Eskolako Aingeru Osoro, Ines Segura eta Joseba Etxeberria, Irunen izango den Gipuzkoako Txapelketan arituko dira larunbatean, hilak 28. Igerilari gazte hauek 4 luzeratan eta 4 estilotan igeri egin beharko dute, kroll, atzerazka, mariposa eta braza estiloetan. Lasterketa bakoitzean lortutako denbora batu, eta denborarik onenak egiten dituztenak sailkatzen dira. Elgoibartarrek bi lasterketa egingo dituzte goizez eta beste bi arratsaldez.

Kiroia nagusi izango da Trinitate jaietan

Trinitate jaietako asteburu hau kirol ekintzatan oparoa da. Larunbatean, goizeko 9,30etan eskolarteko jokuetako atletismo finalak jokatuko dira Mintxetan. Beranduago, 11,30ak aldera, eskolarteko jokuen sari banaketa egingo da, hau ere Mintxetan. Sari banaketaren ostean, automodelismo erakusketa burutuko da eta arratsaldean, Leku Ederreko plazan, Zubi-Ondo elkarteak antolatutako Xake txapelketa jokatuko da. Arratsaldeko 5etan, pilota jaialdia izango da. Ikastolan eta ordu berean Futbito txapelketako finalak jokatuko dira kiroldegian. Igandean, Urki eta Santo Tomas taldeen arteko futbol partidu bat jokatuko da Mintxetan goizeko 11,30etan eta affatsaldeko 4etan, Xake partida azkarrak jokatuko dira Leku Ederreko plazan.



Joxean Hidalgo:

"jubenilen taldea kalitatezko ekipoa da"

1 Pozik jubenilen igoerarekin? - Noski. Orain igo arren lau denboralditan egindako lanaren emaitza da. Denboraldi batean 2. jubeniletik 1. jubenilera eta "Liga Vasca"ra igo gara eta Gipuzkoako txapeldun ere bagara. Partidu bakarra galdu dugu, nahiko modu tontoan gainera. Liga Vasean talderik onenak daude eta orain laguntza ekonomiko gehiago beharko dugu.


1 Zein izan da sekretua?

Sekretua jokalariek dute: gogor lan egitea.

Eta entrenatzaile ona izatea ere bai, ez? - Baita ere, baina eguneroko lana funtsezkoa da. Denboraldi haseran egunero ordu t'erdiz entrenatzen dute eta gero hiru aldiz astean. Sekretua? Hemen beti egon dira jokalaria onak. Ekipo hau duela lau denboraldi hasi zen eta jende berdina mantendu da haseratik, kalitatea duen jendea, gainera. Entrenatzaileak kalitatea duen jende horri ideiak eman behar dizkio. Eta emaitzak oso onak izan dira.

1 Meritua, erdi eta erdi, ez?

Ekipo ona izateko, entrenatzailea, jokalaria, taldeko ordezkariak,... denak hartu behar dira kontutan. Osotasun bat da. Guk talde on bat daukagu; jokalaria on bat falta bada ere, partiduetan maila



mantentzen dugu.

1 Kanpoko talderen baten proposamenik izan al dute jokalariek? - Bai, eta ez orain bakarrik, duela lau denboraldi ere bai. Arazoa da, talde handi batean ez dutela partidu guztiak jokatzeke aukerarik, eta jokalaria hezitzeko aproposagoa da talde txikiago bat. Nik behintzat, hori gomendatzen diet.

Datorren urtean, senior taldea egongo al da? - Bai, igo berri diren jubenilak, hiru ezik, seniorretara pasatuko dira. Hauek beterrano batzuekin territorialean jokatzeke taldea osatuko dute. Datorren urtean bost talde egongo dira guztira: neska eta mutilen kadete eta seniorrak, eta jubenilak.

1 Halterofilia, boleibol, etabeko monitorea, 3. adineko ghnnsian espezialista eta eskubaloiko

entrenatzailea. Zer nahiago? Gehien gustatzen zaidan kirola eskubaloia da, baina bertatik bizi ezin naizenez, beste kirol batzuk irakasten ditut. Gustatuko litzaidake eskubaloitik bizi ahal izatea.

- Adina:
- Kirola bizitzeko ala bizitza kirolerako? Oreka bat topatu behar da.
- Hobbyak: Mendian musika.

Pme 99 ~ 71eua Editeue, ~
AROTEGIA- OBRAK- ISELTSARITZA

Santa Klara, 10-1 Etxea: Santa Ana, 30
 Tel: 74 05 47 Tel: 74 04 68

Raittatxo,
Pcd

Szz
 S.Frantzisko, 74 27 24

usoa

KAFETEGIA

Santa Ana, 6. Tel. 74 25 20

Mend:zale Astea maTtxan

Morkaiko Mendizale Elkartek "Mendizalearen Astea" ospatuko du hil honen 29an hasita ekainaren 5era arte. Aste honetan zehar hainbat ekintza burutuko dira, igande honetako Elgoibarko Itzulia eta ekainaren 5eko Finalista Eguna izango direlarik ekintzarik nabarmenenak. Aste barruan, bi diapositiba emanaldi izango dira Kultur Etxean.

Mendi Itzulia, igande honetan, hilak 29, burutuko da herriko mendirik ezagunenak zeharkatuko direlarik. Mendirik mendi sei tontor egingo dituzte mendizaleek.

Hainbat urtean baztertuta egon ondoren, iaz berreskuratu zuen Morkaiko Mendizale Elkartek Elgoibarko mendi itzulia. Aurten, beraz, berreskuratu zenetik bigarren urtea beteko da. Egunsentiarekin batera, goizeko 6,30etan hain zuzen, aterako dira mendizaleak Maltzaga alderantz, herriko tontorrik altuenak eta ezagunenak egiteko asmoz. Ibilbide luze eta nekagarria da, 43 kilometrotakoa eta 9-10 ordutan egitekoa. Hala ere, iazko edizioan 7 ordu eta 23 minututan egin zuen Iehenak itzuli osoa. Partaidetza aldetik iazko zifra, 81ek eman zuen izena eta hauetatik 71k bukatu zuen, berdintzea espero du antolakuntzak. Mendi irteerak arrakasta izan dezan, eguraldia lagun



• **Mendi tontorrik altuenak igoko dituzte Mendi Itzuliko partaideek.**

izatea baino ez da falta.

1927an, lehen itzulia

1927. urteko abuztuaren 7an burutu zen, lehendabizikoz, Elgoibarko Mendi Itzulia. Lehen itzuli honetan 28 mendizalek hartu zuten parte. Urnabitako gainerik pasatzean, hiru mendizale hobetoen sailkatzen zituen klubarentzat, Athletico de Madrid taldeak trofeo bat eman zuen. Elgoibarko "Football club" taldeak lortu zuen saria. Urte

hartan Zornotzako Andres Espinosa izan zen garaile.

Diapositiba emanaldiak eta Finalista Eguna

"Mendizale Astea"ren barruan, Juan Mari Eguillor-en bi diapositiba etnaldi izango dira Kultur Etxean, bata ekainaren 1ean, Piriniotako trabesiari buruzkoa eta bestea, ekainaren 2an, Bove tontorrari buruzkoa. Hasera ordua, bi emanaldiena, arratsaldeko Sak izango da.

Ekainaren Sean, igandea, Finalista Eguna eta "Lurra eta Hizkuntza" eguna batera ospatuko dute San Pedron Morkaiko eta Elgoibarko Izarra elkarteak. Goizean Morkaikora irteera egingo da, eguerdian domina banaketa San Pedron eta ondoren bazkaria eta dantzaldia. Izena emateko Morkaikoko edo Elgoibarko Izarraren bulegoetara jo.

FITXA TEKNIKOA

- **DISTANTZIA:** 43 kilometro
- **IRAUPENA:** 9-10 ordu
- **IBILBIDEA:** Foruen plaza-Maltzaga-Karakate-Hirukurutzeta-Azkarate(deskantsua)-Altzola-San Migel(deskantsua)-Kalarnua-Morkaiko-Saturixo-Elgoibar.

FUTBOLA Mintxetan **Igandea 29**
11,30: Urki - Sto. Tomas (Kadeteak)

PILOTA Ikastolako frontoian **Larunbata 28**
Orbea II-Aldazabal - Ansola•Altzibar
Ubeda•Goñi - Aritz•Almandoz

rn nnn ral
ESKUBALOA

Elgoibar 27 Zarautz 16 (Kadeteak)
Elgoibar 32 - Leizaran 25 (Jubenilak)
Elgoibar 13 - Urnieta 18 (Neskak)

Ehiza txakurren erakoketa Albitxurij (o zellalan


Datorren 29an ehiza txakurren erakusketa bat burutuko da Albitxuriko zelaietan Real Sociedad Caninako baimendua eta Gipuzkoako Ehiza Federazioak eta Elgoibarko Udalak lagunduta. Erakusketa goizeko 9etan hasiko da eta txakurrek galeperrak ehizatzeko duten abiltadeara erakutsiko dute. Inskripzioen %75a sarientzat izango da eta gainontzeak galeperrak ordaintzeko erabiliko da. Izena emateko Garagarza bitxidendara zuzendu edota 74 01 90 zenbakira deitu. Erakusketako irabazleentzat, sariak banatuko dira. Lehenak Elgoibarko Udalaren orogarria eta dirutan saria jasoko du. Bigarren eta hirugarren sailkatuek garaikurra eta dirua jasoko dute, eta laugarren eta bostgarrenak oparia eta dirua.



• **E** Arrazako ehiza txakurrek beren abiltzia erakutsiko dute.

Erakusketa egiteari laga zion duela urte mordo bat *La Union* elkarteak. Orain Agustin Garagarzaren ardurapean *La Union* elkarte-ko lehendakaritzak, ehiza-txakurren

erakusketa berriz antolatzea erabaki du. Lehen bezala, Estatu guztiko partaideei irekia izango da eta arrazako txakurrei dagokien maila ikus-tea espero da bertan.



Eskubaloi Taldeko

jubenil taldeak "Liga Vasca" deritzon gorengo mailara igotzea lortu du. Izan ere, denboraldi bakar batean bigarren mailatik lehen mailara eta azkenik, "Liga Vasca"ra igo dira, denboraldi osoan partidu guztiak irabazi dituztelarik, bat izako denboraldian Espainiako txapeldun ordea den Zumaiako "Pulpo" taldearen aurka galdu zuten lau goleko aldeaz. Aurten, ezin hobeto bukatu dute denboraldia eta hurrengo aurtengoa bezain onaz izatea opa diegu. Zorionak! Argazkian, jubenil taldea.

KEMEN



Belardenda

MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-P1SUAREN
ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA
REFI.EXOTERAPIA

San Bartolome 25. Tel: 74 40 31

IRIONDO
Taberna

|||=
P. Muguruza ELGOIBAI

ALINTERIORES

SUKALDEAK ETA
BAINU ALTZARIAK
- ATE TOLESGARRIAK
- BARRUKO
ARMAIRUAK
DEKORAZIO GAIK

Tel: 74 40 55 74 40 19.
Errosario 15 Behea.

Muslkeskolla agur esan dlo ikasti reari kontzerturekln



Joan berri den aste hau oparoa izan da musika kontzertuetan. Eibarko Juan Bautista Gisasola musikeskolako, Zarautzko Maun, Deba Musikal eta Elgoibarko Inazio Bereziartua musikeskoletako abesbatzek, kontzertu bat eskaini zuten ostiralean San Bartolome parrobian. Abesbatza bakoitzak hiru pieza eskaini zituen eta ondoren, lauak elkarrekin "Greziako Itsasontzia" eta "Eperrak" euskal kanta herrikoiak kantatu zituzten, Asun Garate elgoibartarraren zuzendaritza-

pean eta akordeoiaren laguntzaz. Astean zehar, berriz, Inazio Bereziartua musikeskoia ikasturte bukaerako kontzertuak eskaini ditu. Hiru egunetan zehar banatu dira kontzertuok, asteazken, ostegun eta ostiralean, hain zuzen. Instrumentu ezberdin ugariaren adieraztoki izan da San Bartolome eliza, hala nola, pianoa, saxofoia, tronpeta, txistua, perkusioa, flauta, txeloa, oboea, klarineta etb. Era berean, musikeskolako Hauspoa akordeoi taldeak, Inazio Bereziartua orkestak eta abesbatzak jardun zuten.

Euskal Tradizioari buruzko erakusketa

Kutxaren Euskal tradizioaren jaietako buruzko argazki bilduma ekainaren 5a arte egongo da ikusgai Kultur Etxean. Egilea Alfredo Feliu da eta bere iruclietan ihauterien arlo ezberdinak azaltzen dira. Lehen zatia, Trinitatera bitarteko aldia erakusten du: batetik, tradizio zaharrei jarraiki, autoritate apokrifikoak (Fabaren erregca), zigortzaileak (Altsasu, Unanua, Lesaka), maskaradak (Suletinoa, Uztaritzekoa...), animalien karakterizazioak (Markina, Arizkun, Altsasu), Donostiako kaldereroak eta tanborrada, Mundakako aratuzteak etb. Bigarrenik, Aste Santuari buruzkoak: prozesioak (Corella), Judasen oinazeak (Gatzaga, Gesaltza...) etb. Eta hirugarrenik, Aralarko San Migel deunaren jai ibitaria Nafarroan barrena: ur eta ardo sendagarriak banatzen dituzten santuen jaiak, erlijio kutsuko jai txikiak (Lazkaoko Astotxo Pesta, Zumaiako San Telmoak), jai patronalak (Gasteizko San Prudentzioak), Korpuseko jaiak (Oñatikoa, Behe Nafarroakoa). Bildumaren azken zatia Trinitate jaietako buruzko da.

Gabi JATETXEA



Berezitasunak

o GOSARIAK o PINTXOAK o
(8,30etatik aurrera)
MENU BEREZIAK
MENU TRADIZIONALAK

JANGELA:

Astelehenetik larunbatera IREKITA
Astelehenetik ostegunera GAUEZ ITXITA

Nafarroa enparantza. Tel 74 12 30

Ruanda gaur egun

Hil honen 12an, ostirala, orain dela 28 urte Euskal Herritik Ruandara joandako misiolari bat izan genuen gure artean bertako gertaera ilunen nondik norakoak azaltzen. Segundok, Urrestillako apaiz misiolaria bera, bertako bi arrazen arteko tirabiren eta basakerien berri ekarri zigun, entzuten ari ginen ikasle nahiz irakasle guztiak aho zabalik utziz.

Udaberri Eguna

Urtero bezala Mekanikako ikasleok Udaberri Eguna ospatzeko parada izan genuen maiatzaren 20an. San Pedro egokitze lanetan zegoela eta aurtan San Lorentzo auzoan bildu ziren ikasle nahiz irakasle gehienak. Goiz partean eguraldia lagun, herri kirolak burutu ziren eta arratsalde erdirako herrira jeitsi behar izan zuten guztiak eguraldi txarra medio.

I n t s u m i s o e n a l d e

Udaberri Egunaren bezperan Elgoibarko Irakaskuntza Ertaineko 2 ikastetxeetan (Mekanikan eta Institutuan) geldione bat burutu zen Elgoibarko intsumisoei ezarritako zigor eta epaiketen aurka. Helburua PSOEko egoitza Udaletxearekin lotzea zen. Lortu ez arren, Talde Antimilitaristako kideak gustura geratu ziren antolatutakoarekin.

"Gaztetxea orain"



-Elgoibarko Gaztetxeari buruzko bozketa egin zen Mekanikan.

Hil honen 10ean Lanbide Heziketako Institutuan ikasleen artean Gaztetxearen aldeko bozketa egin zen. Bertan Elgoibarko Gazte Asanblada urte osoan zehar "Gaztetxearen aldeko ekimena" izenburupean, Elgoibarko kolektibo eta pertsona jakinen sinadurak biltzen ari da eta, ikastetxeetako ikasle ira-

kasleekin ere bozketa ezberdinak egitea erabaki zuten.

Elgoibarko gazteen iritzia zein den garbi utziz, %70a Gaztetxearen alde dago, Udalak gordetako inkestari muzin eginez. SIADECOK egindako inkestaren arabera Elgoibarko %88a Gaztetxearen alde dago.

L.H.I.K OIKASLEAK





AUKERA HANDIA PINTXO
ETA KAZUELATXOETAN

Offh "fajala" ✓

Errosario kalea 31. 74 19 13 ELGOIBAR

Salerosketak

San Roke auzoan GARAJE BAT alokatzeko daukat.
Tr 74 00 67 Martin

KANPING KARRO BAT eta osagarriak saltzen ditut. Egoera onean.
W 74 19 39 Mari sol

ARDI TXAKUR kumeak salgai dauzkat.
sn' 74 31 35
Lizundia Txabola baserria

Estrenatu gabeko WIND-SURFeko TABLA BAT saltzen dut. Prezio egokia
Tr 740392/740465
Lorea

GARAJE BAT SALTZEN DUT Olasopeko (Olaso Industrialdea) 40. zenbakian, bigarren solairuan.
Tr (941) 11 03 05 Rafa

KANPING DENDA HAUNDI BAT saltzen da. Oso berria clago.
***a' 74 15 22**

KITARRA ELEKTRIKO BAT SALTZEN dut. Egoera oso onean. Oso merkea. Deitu ofizina ordnetan:
***a 74 17 15 Iban**

Hilabeteko SETTER txakur kumeak salgai.
n' 12 14 82

GARAJE BAT ALOKATZEN DA, pista beltzean. Bere atearekin.
17 74 16 97

YAMAHA TZR 80 bat saltzeko daukat. SS-AB
73 74 41 12 Nekane

GARAJE BAT saltzen da pista beltzean. Prezio egokia
Tr 74 08 79 Julian

Ford Eseort gorria saltzen dut. SS 0883 AJ.
w' 74 15 24

Bestelakoak

Erloju hat aurkitu dut.
Tr 74 27 06

Barrenera umeen pultsera bat ekari digute. Galdu ditena etor dadila jasotzera.
Tr 74 41 12

Bigarren eskuko FRIGORIFIKO BAT HARTUKO NUKE.. Deitu 10etatik- 12etara
Tr ,74 06 64 Nekane

"SIBERIAN HUSKY" BAT GALDU zait. Emea, grisa eta txuria, begi urdinak. Izarraitz mencli inguran,
11 33 32 Rikardo


BUNGALOW BAT ALOKATZEN DUT Santa Poiako hondartzako lehen ilaran. Ekaina, uztaila eta iraila.
71' 74 27 02 Ana

Apartamentu hat daukat Benidorm-en alokatzeko moduan. Levanteko hondartzako lehen ilaran. Igeri lekua eta aparkalekua dauka. Baita lahadora eta aire girotua ere.
17 74 16 57 /11 32 15

PISU BAT SALGAI Altzolan. Karmen plaza 3 - I ezkerre. (15 milioi)
Interesatuok etorri bertora.

Lana

31 urteko neska etxeko lanak, umeak zaindu, garbiketa lanak eta antzerako lanak egiteko prest dago,
n' 17 17 40



OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak **46 111**
 Txanda hartzeko , **74 3354**
 Alkoholika Anonimoak **740385**
 D.Y.A (anbulantzia) **464622**
 Gurutze Gorria **743864**
 Mendaroko Ospitala **756264**
 Drogomenpekotasun Z **741008**
 Odol Emaileak **743936**

GARRAIOAK

Eusko Trenbicleak **740442**
 PESA (Eibar) **112131**
 Taxi Geltokia **740898**

UDALA

Euskara Zerbitzua....**744366**
 Kirol Zerbitzua **742158**
 Kultura Zerbitzua **742158**
 Mendaroko Udala , **756100**
 Ongizate zerbitzua **743736**
 Udalefixea **744050**
 Udaitzaingoa **741394**

BESTELAKOAK

Caritas **740442**
 IMI **744496**
 Kontsumo Bulegoa **743088**
 Liburutegia **743525**
 Musika Eskola **742145**
 Mintxetct **744315**
 Polikiroldegia **741361**
 Posteb(ea) **744547**

HIRUGARREN AD1NA

San Lazaro Egoitza...**740296**
 Zaharren Biltokia **740526**

IKASTETXEAK

Herri eskola **740879**
 I.M.H. **744432**
 Institutua **740267**
 I kastola **744441**
 L.H,I **744480**
 Pilar IkasteKea **741331**

KOMUNIKABIDEAK

BARREN **744112**
 El Diario Vasco **744073**
 El Mundo **118505**
742267
 El Correo Español **741082**
 Egin **118421**
 Deia **744457**

SAN PEDRO JATETXEA

JAIK ONDO PASATU!

San Pedro Auzoa. Tei.: 74 00 10. ELGOIBAR



TIMTATE JfiffIK 94

18 LARUNBATA

TIONITATE EaPERfi

9,30 ESKOLARTEKO KIROL EN ATLETISMO FINALAK

✓ Mintxetan.

11,00 GASTRONOMI LEH1AKETA

Pedro Gallastegiren omenez.
/ Plaza Handian.

11,30 ESKOLARTEKO JOKUEN SARI BANAKETA

✓ Mintxetan.

12,00 AUTOMODELISMO FROGA

✓ Mintxetan.

16,00 X11. XAKE TXAPELKETA

✓ Leku Ederreko Plazan (Euria balego Kultur Etxeko ganbaran).
Antolatzailea: Zubi-Ondo Elkarte.

17,00 PILOTA JAIALDIA

✓ Ikastolako frontoian.
Antolatzailea: Lagunak Pilota Eskola.

16,00 FUTBITOKO FINALAK

✓ Kiroldegian.

19,00 HAUREN TANBORRADA

Udal Musika bandaren laguntzarekin.

17,00 KOSKAREN KONTZERTUA

✓ Plaza Handia.

11 IGANDEA

TZINITATE EptiNfi

6,30 ELGOIBARKO ITZUL1A

Antolatzailea: Morkaiko M.E.

9,00 TXISTULARI UDAL TALDEAREN DIANA

9,00 EHIZA TXAKURREN ERAKUSKETA

✓ Albitxuriko zelaietan.

11,00 EIBARKO MUSIKA BANDAREN KALEJIRA

11,30 MEZA NAGUSIA.

Bertan Eliz Abesbatzak abestuko du.

✓ San Bartolome Elizan.

12,00 ERRALD01 ETA BURUHAND1EN ALARDEA

Elgoibar, Arrasate eta Sanguesako konpartsekin.

12,30 EIBARKO MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA

■ Plaza Handian.

16,00 XAKE AZKARREKO TXAPELKETA HERRIKOIA

✓ Leku ederreko Plazan.
Antolatzailea: Zubi-Ondo Elkarte.

16,30.21,00 HAURENTZAKO PARKEA

✓ Plaza Handian (Euria egiten badu kiroldegian).

ASTEAZKENA

20,00 DIAPOSITIBA EMANALDIA

Juan Mari Egillor-en eskutik.
Gaia: Pirineoetako trabesia.
s/Kultur Etxean.
Antolatzailea: Morkaiko M.E.

OSTEGUNA

20,00 DIAPOSITIBA EMANALDIA

Juan Mari Egillor-en eskutik.
Gaia: PICO BOVE: "Una cima virgen".
iKultur Etxean.
Antolatzailea: Morkaiko M.E.

8,00.13,00 NAGUSIENTZAKO 1GERIKETA IKASTAROA

✓ Izena emateko kiroldegian.
Ekainak 30 arte.


txandak

FARMAZIAK:


25, larunbata: Yudego
26, igandea: Yudego
27, astelehena: Ormazabal
28, asteartea: Ormazabal
29, asteazkena: Ormazabal
30, osteguna: Eboeberria
1, ostirala: Etxeberria

OKINDEGIA:

10, igandea: ZABALETA



SUKALDE
HALTZARIAK



Ofizina eta erakusketa: Pedro M. Urruzuno, 8. Tel-Fax 74 38 44

SUPER LEHIAKETA

Sarien oanaketarekin amaitutzat
ematen dugu
SUPER LEHIAKETA.

Caja Laboral Euskadiko Kutxak
eskerrak eman nahi dizkie parte
hartu duten elgoibartar guztiei
eta bereziki, Ramon Maiztegi,
Ales Arrietari eta Jose Inazio
E koro-lriberri, beraiek izan bait
dira zozketetako notarioak.

Azken irabazlea **MARIA
JESUS LEIARISTI ARTETXE**

izan da eta beronek

100.000 ptako dirusaria
jaso du.



Ricardo Astigarraga Caja Laboraleko Zuzendaria,
Maria Jesus Leiaristiri Super Saria emateko unean.



Ezkerretik eskumara, Alberto Agirreazaidegi BARRENEko zuzendaria, Jose Angel Zabala, Mari Jose Estibariz, Maria Jesus Leiaristi eta Miren Arrieta sarituak, Nekane Etxaniz BARRENEko publizitate arduradunc, Ricardo Astigarraga Caja laboraieko zuzendaria eta, Nati Garitano, Pedro Jorge eta Jesus Mari Sarasua Caja Laboraloko langileak.

geirietia 4~041 eta e/vreata-94,r,tial.

reha Rcutte.a.4 41,4e9esa,4 elieeft ceit49«,

Elgoibar ezagutzeko giltza

**E 11.31 SICA 1 -
HERRNAN
EAW 11»11.11 IIM IL11
ZILJI E
EC11 IICATS11 11C
ZSIIAM1-111**

UST 1 11K!



**Larunbata, hilak 28
Mandestapena eta mitina Donostian.
Autobusa,
arratsaldeko 3,30etan Plazan**

**ETORKIZUNA
ETA
INDARRA**

**ZURE BOTOA
HERRI BATASUNA**



PAGOAGA S.A.
Iturgintza

ITURGINTZA ETA BEROGAILUAK

IGELTSERITZA LANAK OROKORREAN



**GAS INSTALATZAILEA,
IG4 baimenarekin.**

GAS NATURALA ETA PROPANOA

12 74 02 79 - 74 05 12

San Antolin Kalea 13 ELGOIBAR